

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Alkatearen eginkizunak lehenengo alkateordearen esku uztea aldi baterako

Alkateak, uztailaren 17ko 79/2024 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman du:

2024ko uztailaren 24tik abuztuaren 2ra bitartean (biak barne), Aguraingo udalerritik kanpo egongo naiz.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44.1, 44.2, 47.1, 47.2 eta 48. artikuluek ezarritakoa aztertuz, hau

Ebazten dut

I. Bakartxo Bravo Urbina lehenengo alkateordearen esku uztea alkatearen eginkizunak Aguraindik kanpo egongo naizen aldian ordeztu nagan, hau da 2024ko uztailaren 24tik abuztuaren 2ra bitartean, biak barne.

II. Dekretu hau Bakartxo Bravo Urbinari jakinaraztea.

III. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea eta haren berri ematea udalbatzari, egiten duen hurrengo bilkuran.

Agurain, 2024ko uztailaren 17a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR